



Café - Bar SILDABIA

BILBAO CON MUCHO AMBIENTE

El Casco Viejo de Bilbao, y sobre todo, "el otro lado de la ría", ofrece una ruta de bares, pubs y discotecas de ambiente que nos ayudan a conocer mejor nuestra ciudad y sobre todo a nuestra gente.

La Vieja, bilbotarrek honela deitzen dute, ibaiaren ezker aldean, Areatzako eta San Antoneko zubien artean, kokatzen den inguru da. Duela gutxi arte erakaragarritasun urriko tokia zen, bizitzeko egokia ez zen auzoa. Hala ere, alokairu merkeek, ikasle asko modu iraunkorrean bertan bizitzera eraman zituzten. Gainera, La Merced elizaren berritze lanek, BilboRock Kultur Aretoari lehen abiaraztea eman ziotenek, auzoa Bilboko inguru alternatiboan bihurtu zuten.



Café - Bar NERBION

Dena hiru kaletan gertatzen da: Hernani, Dos de Mayo eta Bailen. Kale hauek Bilboko giro jatorrean barneratzeko bilgune hobezinak dira eta, aukera izan ezker, festarako ezinbesteko parada.

CAFÉ - BAR NERBION

Dos de Mayo kalean kokatzen da eta zonalde honetako kafetegi ospetsuenetariko bat da. Bezeroak, kafe bero bat edo arratsaldeko lehenengo garagaridoak dastatzen dituen bitartean Bilboko Erriberako ikuspegi eder batekin goxatzeko aukera izango du.

CAFÉ - BAR SILDABIA

Lamana kalean dagoen taberna honek ordutegi zabala eskaintzen du asteburuetan; goizeko 7etatik goizeko ordu biak arte. Gainera, hilabete bakoitzeko lehenengo ostiraletan emakumeei zuzendutako jaiak antolatzen dituzte.

Asteazken zehar giro lasaiago batean murgildu nahi duenak, zuku naturalak, irabiakiak edota infusioak hartzeko parada izango du.

BADULAKE

Nagusiki lokal homosexuala izan arren, bezero mota des-



BADULAKE

berdin asko hurbiltzen da toki honetara. Bertan erasotuak eta minduak izan ez daitezen emakumeak, heteroak eta lesbiana, babestu eta kontrolatu egiten dira.

Musika aldetik, garai guztietako Pop-a, 80. hamarkadako taldeak eta azken joera berriak nahasten dira.

Gaua jai giroan jarraitzeko hainbat taberna eta diskoteka gehiago daude inguruan; Eklesia, Enigma, Balcon de la Lola; aspertzeko denborarik ez dago La Viejan. **F**